

Vitoria-Gasteizko Eguneko Tximeleten Kontserbazio Programan laginketak burutzeko landa-gida

Laginketen egunean soinean eramateko eta pausu garrantzitsuenak gogoratzeko asmoarekin idatzi dugu dokumentu hau.

Materiala

Esfortzu fisikoko lana ez izan arren, laginketak aurrera eramateak distantzia handiak ibiltzea eta hainbat orduetan kanpoan egotea dakar gure partzelaren kokapenaren eta topatzen ditugun tximeleta kopuruaren arabera.

Hori dela eta, Atariatik laginketak ez gutxiestea eta ondo prestatuta joatea gomendatzen dizuegu.

Laginketaren egunean zurekin eraman beharreko materialaren lista txiki bat burutu dugu, beharrezkoak eta gomendagarriak direnak bereiziz:

Beharrezkoak

1. Argazki kamera edo kamera duen telefono mugikor bat.
2. Prismatikoak.
3. Landa-fitxa behaketak idazteko.
4. Arkatza eta borragoma tximeleten espeziea eta kopurua idazteko.

Gomendagarriak

1. Tximeleten gida bat behaketen identifikazioa egiteko. Atarian mailegatu ditzakete kontserbazio programako parte partehartzaileek.
2. Laginketa egunerako arropa aproposa: oinetako erosoak, eguzki krema, eguzki betaurrekoa, etab.

Eguneko Tximeleten laginketa

Toki zehatz batera (partzela) joateari eta bertan dauden tximeleten espeziak eta haien zenbakia behatzeari deitzen diogu laginketa bat egiteari. Arrazoi honengatik oso garrantzitsua da guk aukeratu dugun edo guri Eguneko Tximeleten Kontserbazio Programaren barnean egokitu zaigun partzela lagintzea. Beste esparru batean tximeletarik aurkitu ezker, hauek ez dira gure partzelan topatutako behaketa bat bezala hartu behar. Behaketa hauek programaren barruan sartu nahi ezker programaren koordinatzaileari eta Atariako Lantalde Teknikoari jakinarazi beharko diogu.

Tximeleten laginketarako xehetasun teknikoak

Atariatik behaketen ahalik eta argazki gehien ateratzea gomendatzen dugu. Argazki hauek gure behaketaren froga fisikoak dira eta azken heinean gure identifikazioa zuzen hartu dugunaren testigantza. Gainera oso lagungarriak dira behatzen ari gareneri buruz ziur ez baldi bagara, argazkiek beste naturalista batzuei ornitho.eus-en gure identifikazioarekin laguntzeko aukera ematen baitdie.

Gure langiketetan oso interesgarria da partzela barruan espezie bakoitzaren indibiduo kopuru osoaren estimazio bat egitea. Honek populazio guztiaren eboluzio tenporalaren ideia orokor bat eman bait diezaguke.

Noiz eta nola lagindu

- astia daukagunean, kontuan eduki laginketek ordu bateko iraupen minimoa dutela,
- eguerditik hiru ordu lehenagoko eta hiru ordu geroagoko tartean,
- 13°C eta 30°C bitarteko tenperatura daukagunean. Tenperatura 13°C eta 17°C bitartean aurkitzen denean hodeien estalketa %50koa baino baxuago izan behar du,
- Beaufort-en eskalan bost edo gutxiagoko haizearekin eta
- laginduko dugun partzelarekin eta bertan topatu ditzakegun tximeletekin ohituak gaudenean.

Gure behaketen digitalizazioa

Langinketa bezain garrantzitsua gure behaketen digitalizazioa da. Gaur egun, badira hainbat modu digitalizazio hau burutzeko eta Ataritik uste dugu digitalizazio honek abantaila ugari dituela artxibo tradizionalarekin konparatuz.

Interneten aurki daitezkeen plataforma kolaboratiboei esker, etxetik irten gabe gure behaketak beste parte-hartzaileen behaketekin batu ahal izango ditugu Egunezko Tximeleten Kontserbazio Programaren barruan!

Honetaz aparte, plataformek hurrengo abantailak eskaintzen dituzte:

- beste erabiltzaileei esker gure behaketak berresteko aukera,
- guri interesatzen zaizkigun beste animalia edo landareen behaketak miaztea, Vitoria-Gasteizen zein munduko beste edozein partetan,
- programako koordinatzaileari lana errazten dio datu-basea sortu eta analisi lanak egiterako orduan.

Honengatik guztiagatik parte hartzaile guztiak animatu nahi zaituztegu ornitho.eus moduko plataformak erabiltzera. Herritarren zientziako Egunezko Tximeleten Kontserbazio Programaren web orrian aurkitu dezakezue ornitho.eus plataforma erabiltzeko protokolo bat.